

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ILEAREN DEPILAZIO MEKANIKOA ETA DEKOLORAZIOA (zeharkakoa)	Iraupena	90
Kodea	MF0345_1		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko behar den gainerako prestakuntza	Aurpegiko eta gorputzeko diagnostiko estetikoak	Iraupena	60
	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zainketa estetikoetarako kosmetikoak eta ekipoak.		60
	Aurpegiko eta gorputzeko higie- eta hidratazio-zainketa estetikoetarako baliabideen azterketa eta aukeraketa.		30
	Aurpegiko eta gorputzeko higie- eta hidratazio-teknikak.		90
	Makillaje soziala		90
	Irudi pertsonala zaintzeko aholkularitza eta produktu eta zerbitzuen salmenta		60
	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoetako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		160

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0345_1 ILEA PROZEDURA MEKANIKOEN BIDEZ KENTZEA ETA KOLOREGABETZEA

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Ilearn eta eremuaren ezaugarriak aztertzea, depilatzeko edo koloregabetzeko teknikarik egokiena hautatzeko.
- E11.1 Depilazio mekanikoak —ilea pintzekin edo argizariarekin ateratzeak— eta ilea koloregabetzeak dituzten efektuak deskribatzea, eta bi prozesuen abantailak eta eragozpenak azaltzea.
- E11.2 Ilearn egitura eta ezaugarri morfologikoak deskribatzea.
- E11.3 Hipertrikosia eta hirsutismoa eragin ditzaketen arrazoiak aipatzea, eta bi patologien artean dauden aldeak azaltzea.
- E11.4 Depilatzeko produktuen abantailak eta eragozpenak deskribatzea, depilazio mekanikoan aplikatzeko tenperatura aintzat hartuta.
- E11.5 Koloregabetzeko edo depilazio mekanikoko teknikaren aukeraketa zehazten duten kausak justifikatzea.
- E11.6 Koloregabetzeko edo depilazio mekanikoko teknikak aplikatzeko kontraindikazioak eta kontuan hartu beharrekoak aipatzea.
- E11.7 Bezeroa beste profesional batzuegana noiz bideratu behar den bereizteko irizpideak azaltzea.
- A2: Aurpegiko eta gorputzeko ilea koloregabetzeko eta depilazio mekanikorako behar diren kosmetikoak, materiala eta aparatuak hautatzea eta prestatzea.
- E12.1 Depilazio mekanikoan eta dekolorazioan erabiltzen diren aparatuak eta materialak garbitzeko prozedurak deskribatzea.
- E12.2 Depilazio mekanikoko prozesuetan behar diren tresnak eta materialak prestatzea: espatulak, paperezko bandak, zelulosazko zapiak.
- E12.3 Produktu kosmetiko dekoloratzailak prestatzeko modua eta kontuan hartu beharrekoak azaltzea.
- E12.4 Argizari beroarekin, epelarekin eta hotzarekin depilatzeko aparatuak deskribatzea, eta behar bezala erabiltzeko eta kontserbatzeko jarraibideak aipatzea.
- E12.5 Aparatuak eta argizari beroa eta epela depilazio-prozesuetan erabiltzeko kondizio egokietan prestatzea.
- A3: Bezeroa hark eskatutako depilazio- edo dekolorazio-zerbitzuaren arabera prestatzeko eta kokatzeko teknikak aplikatzea.
- E13.1 Bezeroa depilazio mekanikorako edo dekoloraziorako kokatzeko eta prestatzeko kasu praktiko batean:
- Tratatu behar den eremuaren arabera komeni den jarrera ergonomikoan jartzea bezeroa, eta haren arropa babestea.
 - Aplikaziorako behar diren tresnak eta materialak hautatzea, eta produktu kosmetiko dekoloratzailak edo argizari hotz, epel eta beroa kentzea.
 - Profesionala produktu dekoloratzailaetatik eta/edo argizarietatik babestea, behar diren jantziak eta osagarriak erabiliz.
 - Tratatu behar den eremu anatomikoan, garbitzeko eta desinfektatzeko eragiketarako egitea aurrez.
- E13.2 Bezeroaren fitxa egiteko behar den informazioa lortzeko galdera zehatzak egitea.

EI3.3 Bezeroari depilatzeke eta koloregabetzeko produktu kosmetikoekiko sentikortasunaren proba nola egiten zaion azaltzea, esposizio-denbora egokia zehaztuz.

EI3.4 Bezeroari jakinaraztea zer depilazio-metodo erabil daitezkeen eta haiek zer efektu, erabilera eta kontraindikazio dituzten.

A4: Ilea koloregabetzeko teknikak eremuaren ezaugarrien arabera abileziaz aplikatzea, segurtasun- eta higiene-neurri egokiak betez.

EI4.1 Edozein dekolorazio-tratamenduren aurretiko sentikortasun-proba egitea.

EI4.2 Ilea koloregabetzeko produktuak prestatzeko arauak deskribatzea.

EI4.3 Ilea koloregabetzeko kasu praktiko batean, produktu dekoloratzaileak abileziaz ematea tratatu beharreko zonan, 2 edo 3 milimetroko lodierarekin.

- Dekolorazio-prozesua zaintzea, eta, emaitzaren arabera, esposizio-denborak aldatzea beharrezkoa denean.
- Kosmetiko dekoloratzailea behar bezala kentzea tratatutako zonatik.
- Dekolorazioaren ostean larruzala goxatzeko eta emulsio epikutanea leheneratzeko zainketak aplikatzea.

A5: Aurpegirako eta gorputzerako depilazio mekanikoa pintzarekin eta argizariarekin egitea, gunearen ezaugarriak kontuan hartuz eta segurtasun- eta higiene-neurriak betez.

EI5.1 Ilean depilazio mekanikoko prozesuen aurretik larruzala prestatzeko eta egokitzeko eragiketak egitea.

EI5.2 Depilazio mekanikoko prozesuak aplikatzeko kontuan hartu beharrekoak deskribatzea.

EI5.3 Larruzala neurri egokiarekin prestatzea, depilazio mekanikoko prozesuak egiteko argizariarekin edo pintzekin.

EI5.4 Ilea pintzekin ateraz —eta prozesu horretan beharrezkoak diren segurtasun- eta higiene-arauak betez— egiten den depilazio mekanikoaren efektuak deskribatzea.

EI5.5 Argizari bidezko depilazio mekanikoko kasu praktiko batean:

- Egiaztatzea argizariaren tenperatura eta biskositate-maila hura emateko egokiak direla.
- Ilea hazten den noranzkoan ematea argizaria, lodiera berdineko zerrendatan, eta eman den kontrako noranzkoan kentzea zerrenda hautsi gabe, eta gunean presioa egitea.
- Argizari epela edo hotza ematean, telazko edo paperezko zerrenda jartzea gunean, eskuarekin presioa egitea, eta zerrenda ilearen aurkako noranzkoan kentzea. Behar izanez gero, geratzen diren ileak pintzaz kendu behar dira.
- Depilatutako guneko argizari-hondarrak erabat kentzea, zainketa egokiak aplikatzea, eta produktu kosmetiko egokiak ematea.

EI5.6 Argizariarekin depilatu eta gero, garbiketa-, desinfekzio- eta hidratazio-eragiketak egitea.

A6: Ilean dekoloraziorako eta depilazio mekanikorako tekniken prozesuak eta emaitzak ebaluatzea, zerbitzugintza hobetzeko.

EI6.1 Ematen den dekolorazio- eta depilazio-zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen arrazoi teknikoak eta bezero-arretakoak zerrendatzea.

EI6.2 Bezeroaren gogobetetze-maila —zerbitzuaren emaitzari buruzkoa zein arreta pertsonalari buruzkoa— zein den jakiteko aukera emango duten galdera tipoak egitea.

EI6.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten dekolorazio- eta depilazio-zerbitzuak emateko kasu praktikoetan:

- Aurreikusitako emaitzarako desbideratzeak prozesuko zer fasetan gertatu diren identifikatzeko teknikak aplikatzea.
- Gerta litezkeen desbideratzeak zuzentzeko neurriak proposatzea.

Edukiak

1. Ilea.

- Ilea: egitura eta funtzioak.
- Definizioa eta ezaugarriak: luzera, lodiera, kolorea, hazkuntza-erritmoa eta abar.
- Ilea-motak: aldeak eta ezaugarriak. Lanugoa. Biloa. Ilea terminala.
- Depilazioarekin lotutako ile-sistemaren alterazioak. Hipertrikosia. Hirtsutismoa.
- Ilean depilazio mekanikorako eta dekoloraziorako nolabaiteko kontraindikazioa edo erabatekoa izan litezkeen larruzaleko lesioak.

2. Aurpegiko eta gorputzeko ilearen dekolorazioan eta depilazio mekanikoan erabiltzen diren tresnak, aparatuak eta kosmetikoak:

- Altzariak babesteko materiala.
- Pintzak: motak eta erabilera-arauak.
- Argizaria emateko paletak. Tamaina, forma eta fabrikazio-materialak. Erabilera bakarrekoak.
- Argizari epela kentzeko paperezko zerrendak.
- Argizari beroaren urgailuak.
- Argizari epelaren urgailuak eta berogailuak: terrina eta arrabola edo *roll-ona*.
- Depilazio mekanikoan erabiltzen diren aparatu elektrikoaren erabilera- eta segurtasun-arauak.
- Erabiltzeko, kontserbatzeko eta mantentze-lanetarako teknikak.
- Garbiketa, desinfekzioa eta/edo esterilizazioa: ekipoak, produktuak eta teknikak.
- Gorputzeko eta aurpegiko ilearen depilazio mekanikorako eta dekoloraziorako kosmetikoak.
- Honako hauek hautatzeko, manipulatzeke, emateko eta kontserbatzeko irizpideak:

- Depilatu aurretik emateko kosmetikoak: garbigarriak, babesgarriak eta abar.
 - Depilatu ondoren emateko kosmetikoak: garbigarriak, hidratatzaileak, deskongestionatzaileak.
 - Argizariak: beroa, epela eta hotza.
 - Ilea hazkuntza atzeratzeko kosmetikoak.
 - Koloregabetzeko kosmetikoak.
 - Koloregabetu aurretik eta ondoren emateko kosmetikoak.
- 3 Bezeroa segurtasun- eta higiene-kondizioetan prestatzea**
- Ekipoa prestatzea: mihiseria eta beste.
 - Bezeroa prestatzea eta kokatzea.
 - Prozesu hauetan babesteko metodoak eta zonak: aurpegiko eta gorputzeko depilazioa, aurpegiko eta gorputzeko dekolorazioa.
 - Bezeroa babesteko erabiltzen diren materialak eta baliabideak.
 - Arriskuen eta nahi ez diren erreakzioen prebentzioa.
- 4 Aurpegiko eta gorputzeko ilea koloregabetzeko teknikak**
- Gorputzeko eta aurpegiko ilea koloregabetzea.
 - Kontzeptua. Erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
 - Gauzatze-teknikak:
 - Larruazala prestatzea.
 - Larruazalaren sentikortasunaren proba.
 - Produktu dekoloratzailea prestatzea.
 - Produktu dekoloratzailearen aplikazioa, jardute-denbora eta kentzea.
 - Larruazalarentzako ondorengo zainketak eta kosmetikoak.
 - Dekolorazioa azkartzeko metodoak erabiltzea: bero lehorra.
 - Ilea koloregabetzeko prozesuetako segurtasuna eta higiena.
 - Ilea koloregabetzeko prozesuetan profesionala babesteko neurriak. Jantzera. Arropa eta oinetakoak. Lanerako gomendatutako jarrera-higienea. Larrialdi txikietarako botikina.
- 5 Aurpegiko eta gorputzeko ilearen depilazio mekanikorako teknikak**
- Depilazioari buruzko sarrera.
 - Depilazioa eta epilazioa. motak, Depilazio fisikoa: kontzeptua eta sailkapena. Depilazio kimikoa.
 - Depilatzeko teknikak. Kontzeptua eta sailkapena. Pintzak. Argizari beroarekin depilatzea. Argizari epelarekin depilatzea. Argizari hotzarekin depilatzea.
 - Depilazio progresiboa: kosmetikoak, eta haiek hautatzeko eta emateko irizpideak.
 - Argizari-moten erabilerak eta kontraindikazioak.
 - Gorputzeko hainbat zona depilatzeko bezeroak hartu behar dituen jarrerak.
 - Segurtasuna eta higiena depilazio mekanikoko prozesuetan.
 - Depilazio mekanikoko prozesuetan profesionala babesteko neurriak. Jantzera. Arropa, oinetakoak eta beste. Lanerako gomendatutako jarrera-higienea. Larrialdi txikietarako botikina.
 - Segurtasuna eta higiena depilazio mekanikoko prozesuetako aparatu elektrikoak erabiltzean.
 - Aparatuak berrikustea: entxufeak, kableak, konexioak.
 - Aparatuen, osagarrien eta beste osagai batzuen garbiketa eta mantentze-lanak.
 - Behar bezala funtzionatzeko arauak.
 - Aurpegiko eta gorputzeko depilaziorako argizari-urgailuak erabiltzeko araudia betetzea.
- 6 Depilatzeko eta koloregabetzeko prozesuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.**
- Kalitatearen kontzeptua ilea depilatzeko eta koloregabetzeko prozesuetan.
 - Aurpegiko eta gorputzeko ilea koloregabetzeko eta depilatzeko zerbitzuen kalitatea definitzen duten parametroak.
 - Kalitatea aurpegiko eta gorputzeko ilea koloregabetzeko eta depilatzeko zerbitzuen aplikazioan eta salmentan.
 - Bezeroak zerbitzuari dagokionez nahiz jasotako tratuari dagokionez zer-nolako gogobetetze-maila duen neurtzeko teknikak.
 - Ilea dekolorazioan eta depilazioan gertatutako desbideratzeak zuzentzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko baldintzarik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak.